Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

409

Azaroak 15, 2021

Behobia-Donostia lasterketaren festa

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Baso biziak
5 "Musica para ver"
6 María José Noain
7 Irun 1522
8 Kirolak: Behobia Donostia
9 Kirolak: Miliak osasunaren alde
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Aimar Borda
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko azaroaren 20an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orduan albiste ziren gertaerak islatzen ditu. "Una nota simpática" artikuluan gazteek gero eta kirol gehiago praktikatzen dutela kontatzen da, kirolaren praktikaren eta herrialde zibilizatuen arteko erlazioaz hitz egiteko. Extremaduratik Angel Rosadok Afrikara joandako irundarrak gogoratzen ditu, soldadu irundarren ausardia goraipatuz. Jarraian, erremontista batek erremontearen elegantzia goraipatzen du, kirol horrek hirian babes eta laguntza gehiago behar dituela salatzeko. "De todo un poco" albiste laburren atalean, berriz, trenbideetako zubiaren obrek eragindako kalteak, Olaberria auzoko eta Endara zentral elektrikoko elektrizitate arazoak eta hurrengo udal hauteskundeetarako kanpainak aipatzen dira.

Kirol kronikan, Real Union eta Realaren arteko berdinketa errepasatzeaz gainera, egun horretan bertan Burdeosen Real Unionek jokatutako partiduaren xehetasunak azaltzen dira eta Patricio kirolariaren omenaldirako jasotako diru ekarpenen zerrenda gaurkotzen da. R. hizkiaz sinatzen duen aldizkariko kolaboratzaileak etxeen eta jatekoen prezioaren igoera salatzen du. Ostean, Antigenides greziar musikariak bere bizitzan zehar egindako ekarpena laburbiltzen duen testua irakur daiteke. "En el municipio" atalak, aldiz, azken zinegotzi bileran hartutako erabakiak biltzen ditu.

Aldizkariaren hirugarren orrialdearen hasieran Don Gervasio Valverde Gal jaunaren heriotzaren berri ematen da. "Por decir algo..." atalean beste hainbat albiste labur biltzen dira, lastoaren arazoa, bandaren kontzertuak, Irungo ikastetxeetako bekak eta hurrengo udal hauteskundeetarako hautagaiak aipatzen direlarik. Ondoren, Santa Zezilia musikarien egunarekin loturiko hainbat testu labur ageri dira. Aldizkariaren 325. Zenbakia "Ecos de sociedad" eta "Noticias" atal aski ezagunekin amaitzen da, publizitateari eskainitako azken orrialdearen aurretik.

Argazkia:
38108: Bidasoa ibaia. Bi ertzetan Irun-Iruña errepidea eta Electra Irun-Endara zentrala ikus daitezke (XX. mendearen hasiera).

40384: Geltokia kalea lehen planoan, trenbideak eta Iparraldeko Trenbidearen gaineko pasabidea. Bigarrenik, Colon pasealekua, eta eraikin bat nabarmentzen da. Eraikin horren ondoan, 1925eko hamarkadaren amaieran, Trenbideen Elkartearen egoitza izan zena eraiki zen (eskuinean), Bidasoako Trenbidearen geltokiarena eta Familia Santuaren ahizpen komentuarena (ezkerrean). Eszena 1910 baino lehenagokoa da.

57453: Nazioarteko zubien aireko panoramika, Hendaia lehen planoan (1920ko hamarkada).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Aplikazio bidez Irun Aurrera bonuen erabilgarritasuna kontsultatzeko aukera eskainiko du udalak

Martxan da Irun Aurrera bonuen laugarren edizioa eta abenduaren 5era arte luzatuko da. Edizio berria martxan jarri eta lehen egunen buruan hiriko saltoki eta ostalaritza establezimendu batzuek jada bonuak agortu zituztela iragarri zuten. Miguel Ángel Páez Hiri Garapeneko ordezkariak udalaren webgunean martxan dagoen aplikazio bat aurkeztu du eta, horri esker, oraindik bonuak dituzten establezimenduak kontsultatu ahal izango dira.

Horrela, bonuen zerbitzua hobetzen jarraitzeko, edozein ordenagailu edo smartphonetatik kontsultatu daitekeen aplikazio bat diseinatu da. Aplikazioari esker herritarrek denbora errealean kontsultatu ahalko dute ekimenari atxikitako saltokien zerrenda eta horietan oraindik erabilgarri dauden bonuen kopurua. Establezimendu batek bonu guztiak erabili dituenean, aplikaziotik desagertuko da, herritarren artean nahasmendurik ez sortzeko.

Hirigintza arloko geolokalizazio zerbitzuak diseinatu du tresna hau, aurretik egindako beste batzuetan oinarrituz. Batik bat, pandemia garaian geolokalizazio zerbitzuak "1km etxetik" aplikazioa sortu zuen, etxetik ateratzeko aukera kilometro batera mugatua zegoenean kalean egin zitekeen ibilaldia ikusi ahal izateko. Ondoren, Irunen etxera eramateko janaria eskaintzen zuten establezimenduak erraz aurkitzeko zerbitzua prestatu zuen.

Irun Aurrera, aurrera
Hiriko 200 establezimenduk baino gehiagok parte hartu dute Irun Aurrera bonuen laugarren edizioan. Bonuen kanpaina Covid-19aren pandemia dela eta, Irungo Udalak Irun Aurrera izeneko programaren barneko ekimena da. Miguel Ángel Páezek adierazi duenez, "plan horren barruan, merkataritzako eta ostalaritzako bonuak sortzea izan da ekimenetako bat, krisiak gogorren kolpatutako sektoreetako bati laguntzeko". Era berean, geolokalizazio zerbitzuak herritarrei informazioa emateko zenbait tresna garatu ditu, bereziki itxialdi garaian irundarrentzat oso erabilgarriak izan direnak.

Aurrekoetan martxan jarritako Merkataritza eta Ostalaritzako bonoak kanpainietako arrakasta ikusita, Irungo Udaletxeak, merkataritza eta ostalaritzarako 15.000 bono izango dituen beste edizio bat jarriko du martxan.

GJH
Gainera, 2015ean NBEk garapen jasangarrirako 2030 Agenda onetsi zuen. Bertan Garapen Jasangarriko 17 Helburu (GJH) definitzen dira, askotariko gaiei buruzkoak: pobrezia desagerraraztea, klima-aldaketaren kontrako borroka, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurumenaren babesa edo gure hirien diseinua. Irungo Udala esfortzu handia egiten ari da helburu horiekin bat egiteko, eta ekimen hau 8. eta 9. helburuen esparruan kokatu du, hau da, hazkunde ekonomikoa eta berrikuntza sustatzeko egiten den lanean.



"Haurrak parkean" programak aire zabaleko espazioetan euskaraz gozatzeko gonbita egiten du

Irungo Udalak "Haurrak Parkean" izeneko proiektu bat jarri du abian. Proiektuaren helburu nagusia da euskararen erabilera handitzea parkeetan eta kalean. Horretarako, familiei eta haurrei baliabideak eskaini nahi zaizkie, bai eta topaguneak sortu ere, euskararen eskutik, batik bat parkeetan eta haurrentzako jolastokietan, euskarazko harremanak sustatzeko.

Horretarako, azaroaren 10etik abenduaren 3ra bitartean, jolas tradizionalak antolatuko dira Irungo parke eta plazetan, Urtxintxako dinamizatzaileen laguntzarekin. Asteazkenetan eta ostiraletan izango dira saioak, eta higieneari eta segurtasunari dagozkion neurri guztiak beteko dira. Ez da inolako material gehigarririk behar parte hartzeko.

Zehaki, bi programa prestatu dira "Haurrak Parkean" proiektuaren barnean. Lehenak, "Zabu Zibu" izena du eta 17:00etatik 18:00etara, 3 eta 5 urte arteko haurrak dituzten familientzako egokitu da. Ekintzetan parte hartzeko heldu baten laguntza beharko dute umeek, nahiz eta jolasak haurren adinerako aproposak izango diren. Bigarrenak, berriz, "Txirrintxon" izena du eta 18:00etatik 19:00etara, 6 eta 10 urte arteko haurrentzako jolasak proposatuko ditu, adinaren arabera bereizketarik egin gabe.

Egutegia eta guneak
Azaroaren 17an eta 24an eta abenduaren 1ean, asteazkenez, "Haurrak Parkean" egitasmoa Palmera Monteroko Nagore Laffage parkera eta Arbium plazako frontoi estalira iritsiko da. Euria ari badu, Palmera Monteroko jolasak Nagore Laffage parkeko gune estalian egingo dira. Azaroaren 19an eta 26an eta abenduaren 3an, ostiralez, "Haurrak Parkean" egitasmoko ekintzak Julian Sánchez parkean eta San Juan plazan egingo dira. Euria ari badu, ekintzak Julian Sánchez parkeko gune estalian eta San Juan plazakoak Udaletxeko aterpeetan egingo dira. Abenduaren 3ko San Juan plazako jolasak, aldiz, Sarjia parkean egingo dira.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

“Baso bizien aukerak, matarrasarik ez” jarduera Txingudi Ikastolara iritsiko da azaroaren 27an

Baso biziak plataformak “Baso bizien aukera, matarrasarik ez” jardunaldia antolatu du azaroaren 27rako. Ekitaldia Txingudi Ikastolan egingo da eta basoen kudeaketa egokirako proposamenak landu eta bilduko dituzte bertan. Edu Zabala Baso Biziak plataformako kidea da eta azaroko azken larunbaterako antolatutako ekintzen nondik norakoak azaldu ditu.

Noiz eta nola sortu zen Baso Biziak plataforma?
Herrietan Baso Biziak taldeak sortzen joan dira azken urteotan eta momentu batean, zehazki 2020ko martxoan, filosofia beraren baitan mugitzen ari garen herritarrak saretzeko unea iritsi zela ikusi genuen. Horrela hasi ginen poliki poliki bide hau egiten. Ibilbide motzeko plataforma da momentuz, baina, behintzat, nik uste ibilbide luzea izan dezakeela.

Plataforman era askotariko eragile eta ekintzaileak biltzen zarete?
Bai. Esandako moduan, EAEko hiru probintzietako taldeak biltzen gara bertan. Hasi Amurriotik, eta Arratia, Berriatua, Eibar, Bergara, Plentzia, Soraluze, etab. Momentuz, oro har, 17 taldek osatzen dugu plataforma eta gehienbat filosofia beraren inguruan mugitzen garen antolakundeak gara. Uste genuen ondo egon zitekeela talde beraren inguruan elkartzea gure esperientziak eta proiektuak partekatzeko.

Zergatik aukeratu duzue Txingudi Ikastola azaroaren 27ko jardunaldia antolatzeko?
Azaroaren 27an goizean eta arratsaldean izango ditugu ekintzak. Goizean etorriko diren hiru hizlarien artean, bata Donibane Garaziko kooperatiba bat da eta haiei keinu bat egin nahi izan diegu ekitaldira gonbidatuz. Lehendik beste bi ekimen eginak geneuzkan. Lehena Diman, bigarrena Elgetan eta hirugarrena antolatzeko ekialdera etortzea erabaki genuen, gure jarduera apur bat zabaltzeko.

Zein motako publikoari zuzenduta dago ekintza hau?
Baso bizien inguruan sentsibilizatuta dagoen jendeari zuzendutako ekintza da. Azken urteetan zabaldu den monolaborantza industrialaren filosofia eta praktika alde batera utzi nahi dugun pertsonak gara eta, horren aurrean, konponbideak daudela uste dugu. Hainbat teoria zaharkituta geratu dira eta kaltegarriak dira guztiz herritarrontzat eta naturarentzat.

Goizean zein hizlari eta zein gai jorratuko dituzue?
Esan bezala, guztira hiru hizlari dira. Bata Donibane Garazi inguruko Sugarai kooperatibako kidea da. Hauek baso ustiaketa bat egiten dute, erregaia sortzeko, biomasa hurbileko inguruan landuz. Etxeetarako egurra eta hainbat enpresetarako pelletak esakintzen dituzte eta baso hori bertako espeziekin berreskuratuko dela bermatzen saiatzen dira. Bigarrena, Aramaioko Errez kooperatiba da eta ibilbide luze bat dute atzetik. Proiektu kooperatibo bat daukate eta basoaren inguruko bestelako aukerak eskaintzen dituzte. Hirugarrena Euskal Herriko Hazien Sarea da, bertako hazien zainketaz arduratzen dira eta gaztainondoen zainketaz arituko dira. Arratsaldean, gure plataformako kideok “matarrasarik ez” dokumentua irakurri eta hainbat irudien bitartez azalduko dugu. Dokumentuan matarrasak eragiten dituen kalteak kritikatzen ditugu, monolaborantza eredu horren eskutik. Horren ostean, EHUko lau katedradun etorriko dira tailer batzuk ematera. Balizko egoera bat planteatuko dute eta taldeka landuko dira, emaitza eta ondorioak bilatzeko.

Jardunaldian alde teorikoa eta praktikoa uztartuko dira. Zein da jardunaldiaren helburu orokorra?
Batetik, bestelako laborantza ereduak daudela erakutsi nahi dugu, monolaborantza industriala alde batera utzita. Matarrasa dokumentuarekin herritarrei eta eremu honetan dabiltzanei erakutsi nahi diegu bestelako aukerak daudela. Udalen bidez bada bide bat mozioen bitartez matarrasaren aurka egiteko. Matarrasa guztiz debekatzea konplikatua da, baina bestelako aukerak proposatu nahi ditugu.

Zer egin behar da jardunaldian parte hartzeko?
Aldez aurretik interesa duenak basobiziakplataforma@gmail.com helbidean izena eman beharko du. Sarrerak bost euro balio ditu, plataformak diru sarrerarik ez duenez, hizlarien kilometrajea ordaintzeko erabiliko dugu. Horretaz gain, sare sozialetan gaude, Twitterren eta Facebooken, bertan informazio guztia tramitatzeko.

Bidasoa inguruan aipatutako arazoen adibiderik bururatzen zaizu?
Ez, egia esan, hemen inguruan ez. Aiako Harria aipatu dezakegu eta, nahiz eta parke naturala izan, monolaborantza eredu horren ondorioz landatuta egon diren hainbat pinudi edo beste espezie batzuek irauten dute, baina ez da arazo berezirik. Ni Txingudi Ikastolako irakasle izan naiz eta Jaizkibel menditik hurbil dagoenez, askotan erreparatu diogu. Duela 33 urte suteak izaten ziren bata bestearen atzetik, baina, gerora, pixkanaka berreskuratzen joan dela dirudi eta orain beste itxura bat dauka. San Martzialen, berriz, ikasleek kontatu zidaten lehen Irunen jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatzen zela eta, horri esker, oso baso txukuna dago bertan.

Instituzioez gain, hiritarrek ere nolabaiteko erantzukizuna dute egoera honen aurrean?
Guk kontzientziazio lan bat egin nahi dugu, hau da, modu pedagogikoan, eta jardunaldiak horretarako dira. Jendeari erakutsi nahi diogu bestelako aukerak badaudela, orain zertan ari garen eta aukeran zein bide dauden. Kontzientzia hartzeko bide asko daude, urratsak egiten hasi aurretik. Guretzat hori funtsezkoa da: ezagutzea, ikustea, errespetatzea eta urratsak egitea.

Baso Biziak plataformatik bestelako egitasmorik prestatzen ari zarete?
Diman gure filosofiaren berri emateko dokumentu bat plazaratu genuen, baso bizien alde egiteko. Bide horretan, irailaren 4an Elgetan udaletako mozioen gida aukeratu genuen, udaletan aurkeztuko diren mozioen zerrendarekin. Orain hirugarren hau daukagu eta aurrera begira guk geuk ere gure burua argitu behar dugu zein norabide hartuko dugun eta gure aukerak zeintzuk diren ikertzeko.

José Luis Loidi “Kote” eta Lourdes Yarza, “Musica para ver” proiektuaren bultzatzaileak:

“Gure instrumentuen bilduma Irungo edo inguruko herrietako museo batean gelditzea gustatuko litzaiguke”

“Beti esaten dut bildumagile ez zarela jaiotzen, egin egiten zara”

Kote Loidi, bildumazalea

“Benetako artelanak dira, gehienak eskuz eginak baitira eta apaingarri ikusgarriak baitituzte”

Lourdes Yarza, bildumazalea

José Luis Loidi, “Kote”, eta Lourdes Yarza senar-emazteek 40 urte daramatzate musika tresnen bilduma egiten. Egun munduko 180 herrialdeetako 4941 musika-tresna baino gehiago dauzkate. Egun bilduma Irungo pabilioi batean gordeta dute, baina egunen batean haien musika-instrumentuak Irun edo inguruko herrietako museo batean ikustearekin amesten dute.

Nola hasi zineten bilduma honekin?
Kote: Beti esaten dut bildumagile ez zarela jaiotzen, egin egiten zara. Musika etniko eta folklorikorako zaletasuna nuen eta diskoak eta biniloak erosten nituen Hendaian edo Donibane Lohizunen. Harmonika batekin eta 15 txirularekin hasi nintzen eta dena neukan etxean. Bilduma handia zela iruditzen zitzaidan, baina pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago ari zara ikasten eta biltzen. Konturatu gabe 240 txirula bildu nituen eta nik uste dut han hasi zela bilduma bere horretan. Gaur egun 4.000 instrumentu baino gehiago daude. 80ko hamarkadan Lourdes ezagutu nuen, berak ere musika eta instrumentuekiko zaletasuna zuen. Elkarren laguntzarekin iritsi gara orain gauden tokiraino.

4.000 musika-instrumentu baino gehiago dauzkazue, zenbat herrialdetakoak?
Kote: Guztira 180 herrialde ditugu ordezkatuta bat bilduman. 5 kontinenteetako eta 4 familia handietako instrumentuak ditugu, eta, horregatik, aniztasun handia dago objektu, herrialde eta instrumentu kopuruari dagokionez.

Orain interneti esker dena errazagoa. Aurretik nola moldatzen zineten beste herrialdeetako instrumentuak erosteko?
Kote: Hasieran autoarekin alde batetik bestera mugitzen ginen, batez ere brokantezko azoka txiki frantsesetara. Europan, Belgikan eta Holandan, musika tresnak asko kontserbatzen dira, eta erraza zen horiek aurkitzea. Hala ere, Espainian ez dago hainbesteko tradiziorik. Faxa ere tresna bikaina izan zen guretzat, argazkiak, neurriak edo, esaterako, japoniar instrumentu baten prezioa bidaltzeko aukera ematen baitzuen. Gaur egun, Internet bihurtu da musika instrumentuak lortzeko baliabide nagusi, enkanteen bidez edo salerosketa orrietan. Internetekin dena errazagoa da; izan ere, bideoak ere bidal diezazkizukete instrumentuak nola funtzionatzen duen erakutsiz.

Musika-tresnen bilduma egiteaz gain, haiei buruzko informazioa biltzeaz arduratu zarete?
Lourdes: Gaur egun dauzkagun 1491 musika-tresnetatik, uste dut webgunean 1828 daudela igota. Egia esan, denak katalogatuta dauzkagunez gero, 28 edo 29 eremu dauzkagu, eta izen, familia, etnia, datazio eta bestelako datuekin osatzen saiatzen gara. Lehen esan bezala, Internetek asko lagundu digu, museoen artxiboetan sartzeko eta haiek landa-lan hori nola egiten duten ikusteko aukera ematen baitigu.

Hainbeste musika instrumentu gordetzeko leku handi eta egokia behar da, ezta?
Lourdes: Pabiloi batean gordeta dauzkagu, baina ez dugu uste baldintza onenetan gordeta daudenik. Izan ere, leku faltagatik denak pilatuta ditugu, baina ahalik eta baldintza onenetan mantentzen saiatzen gara. Gainera, ez dira erakusketa batean bezala agertzen, espazio eta argiztapen egokiarekin. Orain arte 123 erakusketatarako laga ditugu tresnak. Hemen edukitzeak horiek ukitzeko aukera ematen du, eta museo batean ez dizute utziko. Baina ez daude guk nahiko genukeen bezala. Bilduma oso interesgarria dela uste dut, artista, etnografo, antropologo eta orokorrean publiko osoarentzako erabilgarria izan daitekeelako. Musika-tresnek geografia, historia, etnia eta kulturei buruz ikasteko aukera ematen dute.

Zein da daukazuen musika tresnarik bereziena?
Kote: Musika tresna asko dira eta horien artean bitxi eta berezi asko daude. Zure azken tresnak erosten edo lortzen dituzunean, erabat iraultzen zara, dokumentatzen ahalegintzen zara, datu garrantzitsuak bilatzen dituzu eta gainerakoak pixka bat baztertuta geratzen dira. Hurrengoa iristen denean, berrian zentratzen zara, eta aurrekoa bigarren plano batera pasatzen da. Instrumentu arraroak eta oso bitxiak daude, batzuk okerrak, begi hutsez ez dirudi musika-tresna bat direnik.

Musika-tresna horietako asko desagertu al dira jatorrizko herrialdeetan?
Lourdes: Bai, tresna horien % 80 ez dira ohikoak jatorrizko herrialdeetan, jada ez baitira erabiltzen. Benetako artelanak dira, gehienak eskuz eginak baitira eta apaingarri ikusgarriak baitituzte. Globalizazioak ondorioak izan ditu lanabesen munduan, eta gaur egun denak berdinak dira, fabriketan egiten baitira. Horregatik, garrantzitsua da pieza horiek gordetzea eta kontserbatzea.

Jendeak badaki Irunen horrelako musika instrumentu bilduma bat dagoela?
Kote: Bitxia bada ere, inor ez da profeta bere herrialdean, eta “Música para ver” bilduma oso ezaguna da Espainian, eta baliteke hemen hain ezezaguna ez izatea. Frantzian erakusketak egin ditugu eta egunero 20 edo 30 herrialdetako bisitak jasotzen ditugu webgunean.

Instrumentuak lagatzeko prest zaudete?
Lourdes: Adibidez “Akelarre” edo “Ilargi guztiak” pelikuletarako tresnak utzi ditugu. Orain ogi flauta bat eskatu digute Galizian filmatzen ari diren film baterako. Bestalde, Katalunian grabatutako dokumental baterako ere laga ditugu tresnak. Orain, Almeriako gitarreren museoarekin elkarlanean arituko gara, eta penintsula iberikoko 15 laude emango dizkiegu.

Jaso al duzue museo bat egiteko proposamenik?
Kote: Jakina pentsatu dugula eta gure helburua hori dela, ez dakiguna da non. Salamancan aukera bat izan genuen, izan ere, bertan erakusketa bat egin genuen bigarren aldian alkateak eraikin oso bat eskaini zigun museo iraunkor bat muntatzeko. Pentsatzen aritu ginen, baina biok hemengoak garenez, musika tresnak inguru honetan geratzea gustatuko litzaiguke.

Lourdes: Egia esan, gure inguru hurbilean ez dugu proposamenik izan. Europa mailan beste museo batzuetan ikusi duguna kontuan hartuta, uste dugu badagoela material nahikoa erakusketa garrantzitsu bat muntatzeko.

Bilduma amaitzeko mugaren bat finkatu al duzue?
Lourdes: Oinarrizko mugak ekonomia eta osasuna dira. Ordu asko sartzen ditugu gure zaletasunagatik eta ahal dugun guztia eskaintzen diogu. Gainera, gauzen prezioa asko igo da, eta zorte handia izan dugu orain dela 35 edo 40 urte hasi ginelako; izan ere, gaur egun ez dago hori egiterik. Horregatik, pozik hartuko dugu edozein proposamen.

María José Noain, historialaria eta arkeologoa:

“Ez dugu ahaztu behar ondare immaterialak Irunen duen garrantzia”

María José Noain Historialari eta arkeologoa azkenaldian hirian gauzatutako proiektu ugarietan murgilduta egon da. Azaroaren 14ra arte Amaia Kultur Zentroan egindako Ondarea erakusketako komisarioa izan da eta CBA liburutegian antolatutako Emakume Idazleen jardunaldietan hitzaldia eskaini zuen, besteak beste. Emakumeak historian izan duen papera beti kontuan hartuta, Noainek buruan dituen hurrengo proiektuez hitz egin du.

Zein izan da Ondare izeneko erakusketaren helburua?
Komisario gisa lan egin dut. Udaleko kultura sailaren ekimena izan da eta helburu nagusia herritarrei udal kultur ondarea zein den erakustea izan da. Irunen bilduma artistiko garrantzitsu bat dago, eta obra askok ez dute ohiko sarbiderik; beraz, aukera bikaina izan da mundu guztiari mugitu eta erakuts dakiokeen ondarea biltzeko. Irungo ondarea kultura-ondarea zer den azaltzeko haria izan da, itxuraz denok ezagutzen dugun kontzeptua dela uste baitugu, baina ñabardura asko ditu. Margolan eta eskulturez osatutako erakusketa izateaz haratago, etnografiako edo ondare industrialeko objektuek osatu dute, objektu horiek ondarearen barruan duten garrantzia erakusteko, gozatzeko eta babesteko.

Hiritarrek aurretik ezagutzen ez zuten objekturik aurkitu dute bertan?
Ondare artistikoaren ikuspegitik, pieza berezienetako bat alabastrozko birjina bat da, bere estiloagatik XV. mendekoa dela kalkulatzen da eta jatorrian Elitxuko ermitan zegoen, nahiz eta geroago Ama Xantalen ermitara eraman zen. Han denbora luzez egon da, baina gaur egun Gordailuan gordeta dago; beraz, uste dut ez dela oso ezaguna. Irungo Atseginа konpartsako erraldoietako bat ere ikusi ahal izan da, edo lanbide tradizional batekin lotutako artisautzako pieza bat, esate baterako, ibaian aingirak harrapatzeko erabiltzen zen otarre edo saskia. Erakusketetan hain ohikoak ez diren objektuak dira, baina ondarearen terminoak hartzen duen guztiaz hitz egiteko aukera ematen digute.

Aurretik azaldutako guztiarekin, Irungo hiriak ondare zabala duela esan daiteke?
Bai. Ondare artistikoa bakarrik hartzen badugu kontuan, hau da, arte-bilduma, Gipuzkoako bigarren udalerri aberatsa eta garrantzitsua da zentzu horretan. Ondare arkitektonikoko piezak ere oso garrantzitsuak dira, hala nola, Arbelaiz Jauregia, udaletxea, Junkal parrokia eta abar. Ez dugu ahaztu behar ondare immaterialak Irunen duen garrantzia, izan ere, Irungo tradizio, ohitura eta festen bilduma oso zabala da eta.

Orain dela aste batzuk liburutegiko Emakume Idazleen jardunaldietan parte hartu zenuen. Nolakoa izan zen esperientzia?
Oso ona. Niretzat ohore handia izan zen Emakume Idazleen Egunean CBA liburutegian egotea, baina ez nekien merezi ote nuen oraindik ez nuelako nire burua idazle moduan ikusten. Hitzaldiaren ondoren ere, oso zuzen esan zidaten ideia hori burutik kendu behar dudala. Han egon nintzen literaturaren ikuspegitik idatzi dudan lehen liburua aurkezteko. Erromako lehen enperatrizaren, Livia Drusilaren, biografia nobelatua da. Ondoren, bilduma bererako nobelatutako bigarren biografia bat idazteko aukera izan nuen, eta espero dut hau literaturaren munduan bide luze baten hasiera izatea.

Zer topatuko dute irakurleek Livia Drusilaren biografian?
Livia Drusila oso pertsona interesgarria izan zen, pertsonaia garrantzitsua izan baitzen Antzinako Erromaren ibilbide politikoan. Oso garai berezian bizi izan zen, errepublikaren amaieran eta inperioaren hasieran. Lehen Oktavio deitua eta, ondoren, Augusto bezala ezagutua izan zen Erromako lehen enperadorearen emaztea izan zen. Egia da garai hartako emakumeek ez zutela bizitza sozialean edo kargu politikoetan sartzeko aukerarik, baina badirudi Liviak Erromaren ibilbide politikoan eragina izan zuela bere senarraren bidez. Liburuak emakume historiko horien bestelako ikuspegia eman nahi du; izan ere, garai hartako testuen edo historialarien ikerketen bidez badugu informazioa, eta askotan emakumeak ikusezin bihurtu dira edo ez da haietaz hitz egin. Liburuak begirada berri bat eman nahi du emakume horiek merezi duten lekuan jartzeko.

Zure lanetan askotan emakumeen historia arakatzeko ahalegin berezia egin duzu, ezta?
Beti interesatu izan zait gai hori emakume gisa eta kulturako profesional gisa. Nire proiektuen barruan arte, historia eta arkeologia ikastaroak ematen ditut. Une honetan, “Emakumeak artearen historian” izeneko ikastaroa daukat esku artean. Nire esperientzia pertsonalak ere zerikusia du, Carmen Maura margolariaren alaba gisa. Nire etxean bertan ikusi ditut emakume artista askok edo kulturaren eta artearen munduko emakume askok bizi izan dituzten zailtasunak. Zailtasunak izan dituzte etxetik kanpoko eta barruko lana bateragarri egiteko, eta oraindik ere askotan gertatzen den zerbait da. Horregatik, puntu adierazgarri horrek zerikusi handia du historialari gisa eta eremu pertsonalean interesatzen zaidanarekin.

Parean elkartearekin Hondarribiko emakumeekin lotutako proiektua garatu duzu?
Proiektu hau laster aurkeztuko dugu, eta beraz, ezin dut oraindik xehetasun askorik eman. Proiektuaren barruan doako ibilaldi bat egingo dugu eta parte hartzeko aurretiaz izena eman beharko da. Aurretik, Parean elkarteak ibilaldi historikoak egin zituen Irunen, Mertxe Tranche historialariaren eskutik. Hori dela eta, Hondarribian egin dugun proiektuak orain arte Irunen egin denaren arrastoa jasotzen du, eta Hondarribiko historiarekin harremana izan duten hamar emakumeren irudia berreskuratzen du. Batzuk guztiek ezagutzen ditugu, monarkiarekin edo nobleziarekin lotuta daudelako, baina ikerketa historikoari esker, XVI. eta XVII. mendeko dokumentazioan agertzen diren emakume anonimo batzuen izenak berreskuratu ahal izan dira. Horrek erakusten du botererako sarbide zuzenik ez zuten arren, botere ekonomikorako sarbidea zutela, negozioen jabe zirela, armadoreak zirela, beren ontziak zituztela edo Ternuarako itsasontzi espedizioak kudeatzen zituztela, besteak beste. Horrek erakusten du gizateriaren erdia garela eta eman zaiguna baino garrantzi historiko handiagoa izan dugula.

“Los viajes de Aspasia” webgunean zure proiektuak partekatzen dituzu?
Izen horrekin jasotzen dut nire proiektua edo enpresa. Webgune horretan murgildurik nagoen proiektu guztiak ikusarazten saiatzen naiz. Barruan, blogean, hamabost egunean behin argitalpen bat egiten dut eta hainbat gairi buruz hitz egiten saiatzen naiz. Proiektuarekin bat egiteko modu asko daude, eta horietako bat blogaren edo Youtubeko kanalaren doako edukia da, sarbide libreko arte eta arkeologiari buruzko hitzaldiekin.

Zeintzuk dira oraindik burutzeko dauzkazun proiektuak?
Datorren urteari begira, nire ikastaro-programarekin jarraitzeko asmoa dut. Parean berdintasun elkartearen ibilaldien proiektua amaituta dago, baina uste dut hazteko tartea izan dezakeela, eta ikusiko dugu zer aukera ditugun. Bestalde, Aisilan enpresak kudeatzen duen 18.95 izeneko Kultura arloko zine proiektuaren koordinatzaile bezala lanean ari naiz eta 2022ko lehen seihilekorako bi proiekzio antolatzen ari gara. Beste proiektu polit bat dut esku artean, Bitamine Faktoriako Helga Massetanirekin garatzen ari naizena. Duela gutxi Ribera beka bat eman ziguten eta Bidasoako kartografia emozionala izeneko proiektu bat egin genuen, non elkarrizketa bidez Bidasoako biztanleen memoria berreskuratzen saiatu ginen. Aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Olatuak diru-laguntza lortu dugu eta proiektua zabaltzen saiatuko gara.

Irun 1522ko Guduaren V. mendeurrena ospatzeko ekintzak prestatzen hasi da

2022an 500 urte beteko dira 1522an San Martzialeko gudua gertatu zenetik. Efemeride horren kontura, Irungo Udalak, aurretik beste gertakari historiko batzuen harira egin izan duen moduan, data hori irundarren artean ezagutarazteko ekintza eta jardueren programa bat prestatu nahi duela iragarri du. Gainera, Udalak irudi bat prestatu du efemeridearen ospakizunaren esparruan egiten diren ekitaldi guztietan erabiliko dena.

José Antonio Santano alkateak adierazi duenez, “trena hirira iritsi izanaren 150 urteak eta Luis Marianoren jaiotzaren urteurrena baliatuz, gure historiaz hitz egin genuen, eta oraingoan ere aukera aprobetxatu nahi dugu”. Horretarako, jarduera historikoak, herrikoiak eta ondarea lehengoratzeko jarduerak antolatzeko asmoa iragarri du Santanok, Gazteluzar gazteluko lanez gain.

Horretarako guztirako, udala ekitaldi programa bat lantzen hasi da. Antolatutako ekintzen barnean jarduera instituzionalak, ondarearen balioa nabarmentzeko lanak eta jarduera ludiko eta kulturalak biltzen dira. José Antonio Santanok azpimarratu duenez, ospakizun horiek guztiak Irungo historian oso garrantzitsua izan zen gertaera historiko bat errepasatzeko aitzakia izan nahi dute.

Bestetik, V. mendeurrena Gazteluzar gazteluaren hondarren balioa azpimarratzeko erabili nahi da. Izan ere, Ama Xantalen ermitarekin, Arbelaitz jauregiarekin, udaletxearekin eta Junkal elizarekin batera, Eusko Jaurlaritzak Donejakue bidearen barruan monumentu multzo gisa kalifikatu dituen hiriko bost guneetako bat da. Beraz, Gipuzkoako kultur ondarearen funtsezko pieza bat da.

Horrela, gudu historiko hori gogoan betiere, egungo bakearen eta auzotasun onaren balioa nabarmenduko dira. Urteurrena aprobetxatuz, Bidasoko nazioarteko uren inguruan elkarren ondoan bizi diren udalerriek (Irunek, Hondarribiak, Hendaiak, Urruñak, Biriatuk, Berak eta Lesakak) topaketa bat egiteko asmoa dago. Topaketaren helburua izango da guduaren oroitzapenaren bitartez egungo auzotasun onaren, bakearen eta lankidetzaren balioen garrantzia nabarmentzea.

Ekitaldi kultural eta herrikoiak
Ekitaldi kulturalen eta herrikoien helburua hiria guduaren garaian bezala girotzea izango da. 2022an musika ziklo baten antolaketa prestatzen ari dira, hainbat data, agertoki eta formatu izango dituena. Horrela, 1522ko gertakariekin nolabaiteko lotura duten hiriko agertoki enblematikoetan emanaldiak antolatzeko lan egiten ari da.

Gainera, hiriko historiarekin eta pertsona ospetsuekin erlazionatutako beste efemeride batzuk ospatzeko egin izan den bezala, hiriko merkataritza eta ostalaritza elkarteekin elkarlanean arituko da udala 1522ko gertakariekin lotutako egitarau bat prestatzeko. Asmoa lehen ere arrakasta izan duten ekintzak errepikatzea da, hala nola, hiriko erakustokiak berariaz “janztea”, gaiarekin lotutako antzezpenak egitea eta jarduera gastronomikoak (menuak, pintxoaren bidea, etab.) antolatzea.

Parte hartzea sustatu nahian, udal egitarauak hiriko elkarte eta entitateek 1522ko gertakariekin lotuta aurkezten dituzten ekintza eta proposamenak gauzatzeko eta haiek diruz laguntzeko deialdi bat prestatzen ari da. Dagoeneko proposamen deialdi horren oinarriak lantzen ari dira.

Urteurren historiko honen esparruan, EXFILNA Espainiako Erakusketa Filatelikoa 2022an Irunen egiteko eskatu zuen Irunek. Bigarren aldia izango da erakusketa hori Irunen egiten dena, 2009an ere egin baitzen.

1522 Fundazioaren lana
Irungo Udalak San Martzialgo Guduaren V. mendeurrena ospatzeko prestatutako ekitaldiak iragarri ostean, Irun 1522 Fundazioak harriduraz hartu ditu udalaren asmoak. Izan ere, fundazioko kideak behin baino gehiagotan bildu dira udal-talde guztiekin 2022rako proiektuak aurkezteko, baina adostasun politikorik aurkitu ezinik, Irun 1522 Fundazioak eskainitako proiektu gehienak gobernu-taldeak bere izen propioan aurrera eramatea erabaki du. Irungo Udalak, guztira, bost ekitaldi iragarri ditu. eta Iñaki Arruabarrena Irun 1522 Fundazioko presidenteak adierazi duenez, “harrigarria da Irungo Udalak aipamen txiki bat bera ere egin izana fundazioari, aurkeztutako bost ekimenetatik fundazioak hiru prestatu ostean”.

Egitasmo horietako asko Irun 1522 Fundazioak aurkeztu zituen 2020ko otsailean Amaia Kultur Zentroan egindako bileretan. “Adostasun politikorik ezak eragin du Fundazioak ezin kudeatu izatea zuzenean proiektu horiek”, adierazi du fundazioko presidenteak, hilabete luzeetan egindako lanarengatik Irun 1522 Fundazioak aitorpenik jaso ez ostean. Dena den, erakundeak bere burua zoriondu du bere proiektuak Irungo Udalaren programa batean islatu direlako eta iragarri du 500. urteurrena ospatzeko Fundazioak Irungo Udalari proiektuak aurkezten jarraituko duela.

Dokumentalaren filmaketa
Mario Simancas Ipso Facto Ekoizpen Artistiko irundarreko zuzendariak “Irun 1522: gudu bat baino gehiago” dokumentalaren filmaketa azaroko aurreko bigarren asteburuan hasi zela jakinarazi du. Grabazioa Gipuzkoakoako Foru Aldundiaren, enpresen eta partikularren ekarpenei esker gauzatu ahal izan da. “Dokumental honen helburua da 1522ko batailaren inguruan gertatutakoa azaltzea”, gogoratu du Iñaki Arruabarrenak.

Dokumentalean eskualdeko zenbait aktorek hartuko dute partea, besteak beste, Javier Tolosa eta Patxi Perez. Grabazioak Irungo Gazteluzar gazteluan, Aldabe Mendian, Hondarribiko Karlos V.a paradorean, Jaizubiako paduretan eta Jasokundeko, Sagarrondoko Andre Mariaren Parrokian eta Bidasoa eskualdeko zenbait kaleetan egingo dira. Aire zabaleko grabazioak egiteko, aldiz, udaberrira arte itxaron beharko da, birsortu nahi diren gertaerak ekaineran gertatu baitziren. Gainera, erakundeak pandemia dela-eta bertan behera gelditu ziren ekintzak berreskuratzeko asmoa iragarri du, hala nola, hitzaldi-zikloa, ekitaldi gastronomikoak eta Basque Culinary Center-ekiko lankidetza. Ekimen guzti horiek gauzatu ahal izateko hiriko elkarteak, enpresak eta partikularrak proiektura atxikitzea ezinbestekoa dela gogoratu dute fundazioko kideek.

Kirolak berriro Behobia eta Donostia festa batean lotu ditu

Urte bateko etenaldiaren ostean, azaroaren 14an Behobia-Donostia lasterketak Irun eta Gipuzkoako hiriburua lotu ditu berriro. Guztira, (KOPURUA) lasterkarik parte hartu dute kirol proban.

Pandemiaren egoerak hala ahalbidetu duenez, azkenean, Behobia Donostia berriro antolatzea posible izan da. Izan ere, lasterketaren 56. edizioa 2020ko azaroan egitea aurreikusita zegoen, urte bereko abuztuan Fortuna Kirol Elkarteak probaren antolaketa bertan behera uztea erabaki aurretik. Aurreko urtean zehar hainbat ekitaldi birtual antolatu baitziren ere, urtebete itxaron behar izan da lasterketa kalera itzultzeko.

Lasterketaren 56. edizioan kirolariek Behe Bidasoa eta Donostialdea banatzen dituzten 20 kilometroak zeharkatu dituzte. Lasterketako sailkapen ofizialean, Eneko Agirrezabal gipuzkoarra izan da Donostiako helmugara iristen lehena 1 ordu 1 minutu eta 41 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Nuria Lugueros (1 ordu 12 minutu eta 42 segundo) izan da lasterketa amaitzen lehena. Pertsona ezinduen kasuan, aldiz, Ivan Manoel Montero (00:38:49) izan da parte hartzaile azkarrena. Patinatzaileetan, ordea, Aitor Vacas (00:38:32) izan da helmugara iristen lehena.

Egokitzapen txikiak

Azkenean, lasterketa antolatzea posible izan bada ere, hainbat egokitzapen egin behar izan dira proba pandemia testuingurura egokitzeko. Probaren antolakuntzatik izen-emate kopurua %25 murriztu da, lasterketaren ohiko egitura eta dimentsioak mantenduta. Esaterako, maskararen erabilera bezalako elementuak kirol-proban txertatu dira. Lasterketan zehar musukoa jantzita eramatea beharrezkoa izan ez bada ere, irteera taldeetan eta helmuga gainditu ondoren musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izan da. Gainera, 15 minutu luzatu da irteeren arteko tartea, ibilbide osoan lasterketaren dentsitatea murrizteko.

Ibilbideko anoa postuak mantendu diren arren, 3. eta 5. postuetan anoa solidoa kendu da, ura eta isotonikoak soilik mantendu direlarik. Era berean, irteerako kontsignan pilaketak saihesteko, irteera aurreko kontsignak erabiltzea aholkatu zitzaien lasterkariei. Aurten lasterketaren azokarik izan ez denez, lasterketaren poltsak Reale Arenan edo probaren egunean Gipuzkoa plazan jaso behar izan dira. Bestetik, ez da indarberritze kaparik ipini eta, horren ordez, helmugako anoa poltsak normalean baino produktu gehiago izan ditu. Horrela, egokitzapenak tarteko, kirola, esfortzua eta giro ona Behobia eta Donostia arteko errepideetara itzuli dira.

Miliak Osasunaren Alde jardunaldiaren bosgarren edizioa azaroaren 21ean egingo da

Bidasoa Atletiko Taldeak Miliak Osasunaren Alde jardunaldiaren bosgarren edizioa aurkeztu du. Jardunaldia azaroaren 20ko goizean egingo da eta Colon pasealekuan zehar hainbat ekintza egingo dira milia ardatz hartuta. Aurreko edizioen antzera, aurtengo jardunaldiak herritar guztien parte-hartzea bultzatu nahi du, kirola eta osasuna konbinatuz. Aurreko edizioetan gertatu bezala, jardunaldian bildutako dirua Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako elkartearen Bidasoko ordezkaritzak jasoko du.

Azaroaren 21ean, igandea, 10:00etan hasiko da Irungo erdigunea goizean zehar hartuko duen ekitaldi hau. Miliaren eta mota guztietako hiritarren parte-hartzearen inguruko probaren bosgarren edizioa da. Iñigo Eseberri, Bidasoa Altetiko Taldeko ekitaldi arduradunak adierazi duenez, "ez da soilik kirol-proba bat, askoz gehiago da, goiz osoa hartzen duen ekitaldia da eta izaera sozial handikoa".

Goiza adineko pertsonentzako Ttipi–Tapa ibilaldiarekin hasiko da. Adineko talde hau astean zehar Irunen eta Hondarribian elkartzen da paseatzeko, eta Irungo miliako zirkuituari bi buelta emango dizkiote, ibilaldia Irundik barrena jarraitu aurretik. Amaitzen dutenean, Zabaltza plazan eskainiko zaizkien patata-tortilla eta uraz gozatuko dute. Ondoren, 10:45etan, 4x1 miliako errelebo-lasterketa hasiko da. DBHko taldeei eta ikasleei zuzendutako lasterketa izango da, adin horietan jarduera fisikoa sustatzeaz gainera, sedentarismoa saihesten laguntzeko. Korrikalari bakoitzak bere milia banaka egingo du, denborak hartuko dituen txip lekuko batekin, eta 4 kideen baturak emango du azken emaitza. Probak sailkapen eta sariketa berezituak izango ditu.

Goiz erdialdean kirol egokituaren txanda izango da. 11:30etan irtengo dira handbikeak eta gurpil-aulkiak, Salto Systems Milla Egokitua egiteko. Ondoren, 11:45ak aldera, milia erdi bat egingo dute adimen-urritua duten pertsonek, eta nahi duen orok lasterketan parte hartzeko aukera izango du. Iñigo Eseberrik gogoratu duenez, "aurreko edizioetan gurasoek, atletismo eskolako atletek eta nahi zuten guztiek proban parte hartu zuten eta oso une berezia eta polita izan zen igande goiz haietan". Josu Zubia BATeko kirol egokituko ataleko arduradunak gaineratu du, Plaiaundin ostegunero entrenatzen duen Bidasoa Atletiko Taldeko kirol egokituko taldea oso pozik eta motibatuta dagoela lasterketa honekin.12:00etan, goizeko bigarren lehiaketa egingo da; kasu honetan, binakako lasterketa izango da. Bikoteek elkarrekin, eskuak emanda, korritu beharko dute hasieratik bukaerara. Bikoteak gizonezkoak edo emakumezkoak osatuak izango dira, eta bikote mistoak ere izan ahalko dira. Zirkuituari 3 itzuli emango dizkiote 3 milia korritzeko eta sailkapen eta sari bereiziak ere izango dituzte.

Eguna ekitaldi solidario batekin amaituko da, 12:45etan familientzako lasterketa solidarioa hasiko baita. Azken proba honetan mundu guztiak parte har dezake, adin mugarik gabe. Parte-hartzaile bakoitzari 3 euroko dohaintza sinbolikoa eskatu zaio. Irteera honetan bildutako diruarenaren %100a AECCren Gipuzkoako ordezkaritzak jasoko du. Ez da proba lehiakorra izango, beraz, ez da kronometratuko eta ibilbidea korrika zein oinez egiteko aukera egongo da.

Minbiziaren aurkako elkarteak Bidasoan duen egoitzako langile-soziala da Gemma Landache eta zera azpimarratu du, "horrelako probetatik jasotako dohaintzek Bidasoan minbiziaren aurkako borroka mantentzen laguntzen digute. Landachek gogoratu duenez, hiru urte daramatza BATek Miliak Osasunaren Alde egitasmoa bildutako zenbatekoaren bitartez minbiziaren aurkako lanean laguntzen. Gainera, Gemma Landachek adierazi du, ekarpen ekonomikoaz gainera, lasterketa Bidasoko minbiziaren aurkako delegazioan egiten den lana ikustarazteko "oso lagungarria" dela.

Jarduera hauekin batera, goiz osoan zehar Zabaltza plazan Super Amara BATek atletismoaren inguruko Igande Sasoi bat egingo dute, Igandero izeneko egitasmo berriaren barnean. Kirolari txikienek, klubeko begiraleen gainbegiradapean, atletismoko diziplina ezberdinak probatzeko aukera izango dute, hala nola, hesi lasterketa, luzera jauzia eta jaurtiketako hainbat proba.

Izena emateko

Proba guztietarako izen-emateak jada zabalik daude Kirolprobak webgunean. Lasterketaren egunean bertan ere izena emateko aukera eskainiko bada ere, BATeko kideek izen ematea online egitea eskatu dute, kudeaketa lanak errazte aldera. Lasterketen prezioak mantendu egiten dira aurreko edizioekin alderatuta: 7 euro pertsonako, 28 euro 4x1 miliako taldeak eta 9 euro pertsonako taldeak, 18 euro bikoteko 3 milietako lasterketan. Aurten, gainera, binakako lasterketan izena eman duten bikote guztiek doan korritu ahal izango dute txandakako lasterketa, taldea osatzeko bi pertsona gehiago aurkitzen badituzte.

Pandemiaren bilakaera baikorrak kirol proba herrikoien antolaketa berreskuratzea ahalbidetu du. Dena den, Bidasoa Atletiko Taldeko ordezkariek Covid-19arekin lotutako murriztapen neurriak errespetatzeko deia egin dute. Adibidez, jardunaldian zehar pertsonen arteko distantzia errespetatzen ez denean maskara erabiltzea eskatu dute. Hala ere, kirol probetan kirolarientzat maskararen erabilera ez da derrigorrezkoa izango.

Hurrengo lasterketen prestaketa

2021. urtea oraindik amaitu ez bada ere, Bidasoa Atletiko Taldea datorren urteko kirol proben egutegia antolatzen hasi da. Horrela, 2022. urtean zehar, aurreko urteetako eskema bera jarraituz, 8 kirol ekitaldi antolatzeko asmoa adierazi du klubak. Miliak Osasunaren Alde jardunaldia ohiko datara itzultzea nahi du atletismo klubak, beraz, intentzioa da proba hori 2022ko martxoaren hirugarren asteburuan antolatu ahal izatea. Dena den, 2021. urtea agurtu aurretik BATek azken hitzordu bat proposatu nahi die korrikalari irundarrei, abenduaren 18an Gabonetako krosa egingo baita. Dagoeneko urteko azken kirol hitzorduan izena emateko epea zabalik dago.

XXI FICAB BIDASOKO XXI. NAZIOARTEKO ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA

Bidasoko Zinema Arkeologikoaren Nazioarteko Jaialdiak 21 urte bete ditu. Harro eta oso pozik gaude urtez urte eta filmez film Zinemaldiaren hazkundea ospatzen jarraitzeaz. Joan den urtean 20 urte bete zituen jaialdiak egoera benetan zailean, horregatik aurten 20 + 1 urte ospatu nahi ditugu.

Gure erronka nagusia aurtengo aukeraketan dauden 27 film eder hauek ahalik eta jende gehienarekin partekatzea da. Gure helburua arkeologia eta zinea elkarturik zabalkuntza bide honi leiho bat irekitzea da. Hogei urtez zinemaldia hazi eta erreferente bilakatu da, hala ere, oraindik jende askok ez du gure jaialdia ezagutzen, ala ez daki ondo zer nolakoa den, baina jakin badakigu behin etorriz gero jaialdiaren kide eta jarraitzaile bihurtuko dela ikuslea.

Pasa den urteko zailtasunak gainditu ahal izan genituen eta etorkizunari ilusio handiz aurre egiten diogu. Bai guk eta baita arkeologo eta zinegileek. Joan den urtean munduan barrena pandemiak eragindako geldialdiak, indusketetan eta zinean eragin zuzena izan zuen. Egia aitortzen jarrita, zaila ikusten genuen aurten zinemaldiak bere mailari eustea, baina gure sorpresa izugarria izan da urtero jasotzen ditugun adina film jaso ditugula ikustea, eta oraindik ere, sorpresa pozgarriagoa izan da hain film ederrak eta interesgarriak jaso ditugula baieztatzea. Lan zaila izan da, jaialdiak irauten duen aste horretan nahi genituzkeen film guztiak sartzea.

Munduko hainbat lekutatik iritsitako film benetan interesgarriak jaso ditugu aurten ere, historia eta aurkikuntza bakoitzaren atzean dauden istorioak erakusteko grina partekatzen dutenak, arkeologiari aplikatutako aurkikuntza eta aurrerapen teknologikoak erakutsi nahi dizkigutenak, teoria berriak planteatzen dituztenak, edo adituen ezagutzak zabaltzea bilatzen dutenak, eta baita errealitate birtualaren bidez galdutako eraikuntzak erakusten dituztenak. Zoragarria eta magikoa da denboran zehar bidaiatu ahal izatea eta bestela guretzat existitzen ez diren leku, indusketa edo errealitateetara iritsi ahal izatea. Filmen kalitatea, zorroztasun zientifikoa, pizten duten jakin-mina, eskaintzen diguten begirada zehatza, originaltasuna edo horien apartekotasuna dira zientzialari eta sortzaile handi hauen bitartez partekatu eta zabaldu nahi ditugun alderdiak.

Horretarako, bereziki ikasleei eskainia dugu Hezkuntza Saila; Orona Fundazioarekin elkarlanean antolatuta indartu nahi izan dugu. Bertan historiari eta arkeologiari buruzko proposamen erakargarriak ikusi ahal izango dituzte gazteek goizetako saio hauetan. Bidasoaldeko ikasleek Amaya Kultur Zentroan eta Oiasso Museoan parte hartu ahal izango dute, eta Donostialdeako ikasleek berriz, Orona Fundazioaren Auditorioan. Maria Intxaustegi urpeko arkeologo eta nabigatzaile adituarekin ere solasaldia izateko aukera izango dute. Maria Intxaustegi gai hauetan aditua izateaz gain, pasioz beteriko emakumea da, eta hezkuntzan eskarmentu handia du. FICABek, gainera, film baten inguruan Ikertze Fundazioak Narbo Martius, la fille de Rome filmaren inguruan egin duen gida didaktikoa eskainiko die ikastetxeei.

Arratsaldetan, Xabier Peñalver arkeologo adituak aurkeztuko ditu dokumentalak eta piztuko du solasaldia. Donostiako Aquariumean itsasoaren eta urpeko arkeologiaren inguruko bi film ikusgarriren proiekzioaz gozatuko dugu. Eta aurten Aquariumean, ONCE Fundazioarekin lankidetzan, ikusteko zailtasuna duten pertsonek Audesc sistemarekin pelikulaz gozatzeko aukera izango dute. Mugikorrean aplikazioa jaitsi behar da. Eta filma hastean, aplikazio hori martxan jartzea besterik ez da egin behar filmaren deskripzioak entzun ahal izateko.

Amaya Kultur Zentroan, urtero bezala, iluntzeko emanaldiak eskainiko dira, eta inaugurazio gala ere bertan ospatuko da, Epaimahaiaren aurkezpenarekin. Nazioarteko epaimahai honek, amaiera ekitaldian ere sari banaketan parte hartuko du. Amaiera gala hau Bizinema Irunek antolatuko du, animazioz eta sorpresaz betea.

Online jaialdia ere eskaintzen jarraituko dugu, baina ez diogu uko egingo aurrez aurreko topaketari, ikusleekiko harreman zuzena eta solasaldiak baitira FICABen bereizgarrietako bat. Eskerrik asko Irungo Udalari, Eusko Jaurlaritzari, Orona Fundazioari, Donostiako Aquariumari, Bizinema Iruni, ONCE Fundazioari, eta nola ez, Irunerori, zuen orrietan jaialdiaren zabalkundea egiteko ematen diguzuen aukeragatik. Eskerrik asko errealizadore eta ekoizle guztiei, eta batez ere gure publikoari, aurten guztiok partekatzen dugun ilusioarekin zine areto guztiak beteko dituzten arkeologiaren zaleei, esker aunitz.

FOTOGRAFÍA ESTUDIO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

LEKAENEA LH2



Denbora-pasak

7 hitz: Pertsonaia mitologikoak II

P	H	Z	B	Z	M	P	Q	A	L	E	I	C	Y	
G	A	M	A	L	U	R	N	O	B	Z	Q	D	Q	
X	A	A	U	K	Q	V	O	N	R	D	S	X	U	
J	O	U	Q	F	E	K	O	H	W	T	Q	V	Z	
A	L	I	E	M	V	R	O	E	Q	P	Z	H	E	
A	X	E	S	K	R	Y	B	R	T	G	O	I	T	
Z	T	E	N	R	O	P	D	E	I	S	H	V	X	
A	I	E	K	C	Y	C	S	N	L	I	G	T	D	
I	I	G	S	P	S	Z	U	S	Q	T	B	F	Q	
Y	G	G	I	V	R	U	G	U	T	A	Z	B	L	
M	C	M	A	R	I	N	A	G	U	R	X	J	Q	
O	C	B	O	L	Y	C	A	E	J	T	C	L	I	
K	T	Z	B	S	X	U	R	S	G	E	X	I	W	
B	T	S	T	S	Y	A	B	Y	L	K	C	H	V	

Mari, akerbeltz, gaueko, herensuge, amalur, ortzi, sugaar

		2	7		6			3
3				8			6	
		8				5		7
	8		6	3		7		
9	1	5	2	4				
7						2		
8		9			3			4
6				2			3	
	4				8			

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Mutil bat zitzaidan nere itxera etorri

Mutill bat zitzaidan nere itxera etorri

traje baten gaya beartzirala neurri

orañalakiñ jo nuen kopeta ezurrian

damutu´re zitzairan; eginiyon kura

itxian zen botika garatza ta ura

Jose Bentura ez etorri geyago nere komentura

egin baldin baniñen gurri ero murri

nere kopeta ezurrak pagatzen diñ ongi

Joxepa´ntoni jornalak artu eta itxera nian ni.

Irungo Kateako R.S.A. andereari jasoa (1959-X-5).

(El Bidasoa, 1960-IV-2).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

EL PILAR DBH4

"Influecer-ek" benetan influentziatzen dute?

Azken urte hauetan "influencer" deritzon figura jaio da. Influencer bat gai jakin baten inguruan nolabaiteko sinesgarritasuna duen pertsona bat da, eta sare sozialetan duen presentziagatik eta eraginagatik marka baterako interesgarri bihur daiteke. Jende askok pertsona hauek kritikatu dituzte, gazteengan izan dezaketen influentziarengatik, horrek dakartzan gauza on eta txarrekin.

Galdera hau da: eragin txarra izan dezakete gazteengan? Eta erantzuna hau da : bere esku dago. Gazte horiek eragin batek eta sare sozialek oro har transmititzen duten guztia zalantzan jartzeko izan dezaketen gaitasunaren araberakoa da, batez ere. Ezin dugu ukatu gazteek sareetan eta "influencer"-etan gustuak eta zaletasunak partekatzeko modu bat aurkitzen dutela, eta askorentzat beren autoestimua berresteko edota adinari dagozkion esperientziak eta bizipenak partekatzeko aurkitzeko modu bat dela. Nahiz eta beste askorentzat "influencer"- ek guztiz kontrakoa eragin dezaketen, konparazioak adibidez, eta beste hainbat trastorno, ederrago ikusteko asmoz.

Printzipioz, esan behar, "influencer-ak" nahiko gauza berria direla, sare sozialei eta horiek jendean duten eraginari esker sortu direla, beraz, ez dago legerik zer egin dezaketen eta zer egin ezin duten esateko. Nire ustez, "influencer-en" araberakoa da dena, horietako askok berdintasuna eta autoestimua sustatzen saiatzen dira, eta denok desberdinak garela baina garen bezala maitatu behar garela diote. Baina beste pertsona batzuk ere aurki ditzakezu, guztiz kontrakoak, pertsonak epaitzen dituztenak, eta edertasun-kanon horietan sartzen ez diren gazteei aurreiritzi asko sortzen dizkietenak.

Oso garrantzitsua da, halaber, "influencer"-ek argitzea beren bizitza ez dela beti sare sozialetan erakusten den bezalakoa; izan ere, gazte askok "influencer"-en profiletan ikusten duten guztia sinets dezakete, eta depresio edo nahasmenduren batean erori, "influencer"-en bizitza idilikoa dela eta beraiena txarra dela pentsatuz.

Hau guztia dela eta, egia da pertsona batzuek ekintza txarrak edo adikzioak susta ditzaketela, baina nik uste dut ez genukeela "influencer"-en figura gauza txar gisa sailkatu behar, horietako askok oso arrazoi garrantzitsuengatik borrokatzen baitute, mundua hobetzen saiatzen direlako.

Lucia Miranda (DBH 4)

Aimar Borda, judoka:

"Oso pertsona saiatua naiz eta hori da nire bertute nagusia"

Olaketa judo klubeko Aimar Bordak Espainiako Txapelketan lehiatzeko pasea lortu du Euskadiko Rankinga irabazi ostean. 14 urteko gaztea abenduko zubian Madrilen jokatuko den txapelketarako gogor entrenatzen ari da. Aurreko urtean txapelketa berean lehiatzeko aukeraren atzetik ibili zen, baina Covid-19ak dena zapuztu zuen. Aimar Bordak maila altuko txapelketak prestatzeko entrenamendu errutina eta bere beste zereginak nola uztartzen dituen kontatu du.

Noiz hasi zinen judoa praktikatzen?
Hiru urterekin hasi nintzen judoan. Dena nire aitagatik izan zen, bai aitak bai gainontzeko senideek aspalditik judoa praktikatu izan dutelako. Hiru urte besterik ez nituela hasi nintzen, orain 14 urte dauzkat eta urte guzti horietan zehar judoan aritu izan naiz.

Euskadiko Rankingean postu horretara iristeko aukerarik ikusten zenuen?
Egia esan, ez nuen espero lehen postua lortzea, txapelketaren aurretik ez bainituen nire aurkari gehienak ezagutzen. Gipuzkoako judoka gehienak aurreko txapelketetatik gutxi gorabehera ezagutzen nituen, baina Bizkaikoekin eta Arabakoekin ez naiz hainbestetan lehiatu. Horregatik, aurretik ezagutzen ez nituenez, zaila egiten zitzaidan zenbat borrokaldi irabazteko aukera nuen jakitea.

Nolakoak izan ziren Euskadiko rankingeko borrokaldiak?
Egia esan, lehen borrokaldia irabaztea asko kostatu zitzaidan, hiru minutu iraun baitzituen borrokaldiak. Hala ere, bigarrenean askoz errazagoa izan zen nire aurkaria garaitzea, kasu horretan segundo gutxi iraun baitzituen. Azkenik, finaleko borroka oso bizia izan zen, "Waza ari" bat egin nuen, eta horrek 10 puntu eman zizkidan markagailuan, baina geroago kendu egin zidaten eta nire aurkariari eman zioten, berriro ere niri itzuli aurretik. Ondoren, beste "Waza ari" bat egitea lortu nuen eta horrekin garaipena iritsi zen. Azkena 8 minutuko borrokaldi oso bizia izan zen, bai niretzat eta harmailetatik borrokaldia ikusi zuten nire senideentzat.

Beste inoiz Espainia mailan lehiatu izan zara?
Aurreko urtean Espainiako Txapelketara joan ahal izateko sailkapenean sartzeko zorian egon nintzen, baina pandemiaren hasierarekin dena bertan behera gelditu zen. Beraz, aurten Espainiako Txapelketara joateko gogo handiak ditut.

Zure errendimendu fisikoan pandemiak eragina izan duela uste duzu?
Ez nuke esango pandemiaren eragina nire errendimendu fisikoan gehiegi nabaritu dudanik. Konfinamenduan zehar ez nituen entrenamenduak utzi eta etxean nire kabuz ariketa fisikoa egiten jarraitu dut. Horregatik, ez dut uste nire errendimendua asko murriztu denik.

Orain nola prestatzen ari zara Espainiako Txapelketan dena eman ahal izateko?
Nire hurrengo lehiaketa gogo handiz prestatzen ari naiz. Txikitatik ilusio handia izan dut maila horretako txapelketa batean lehiatzeko. Gogo handia dut hara joateko, lehiatzeko, eta nire helburua domina bat lortzea da, etxera ekarri ahal izateko.

Espainiako Txapelketarako zer hobetu nahi duzu?
Txapelketa garrantzitsu honi begira hobetzea gustatuko litzaidakeen gauzetako bat teknika bat da, denbora asko daramat praktikatzen eta saiatzen jarraituko dut lortu arte. Eta ezer gutxi bururatzen zait, egia esan, oso pozik nago orain arte egin dudanarekin. Uste dut podiumera iristeko aukerak dauzkadala. Aurretik Valladoliden jokatutako Espainiako Kopetako batean bosgarren postua lortu nuen, beraz, ikusteko dago zer gertatuko den oraingoan.

-66 kilogramo azpiko kategorian lehiatzen zara. Erraza da bertan mantentzea?
Gaur egun 67 kilo pisatzen ditut, beraz, txapelketarako dieta egin beharko dut. Elikadura asko zaintzen dut, esaterako, ez dut ogirik jaten eta egunero pisatzen naiz pisua kontrolatzeko.

Nola antolatzen dituzu entrenamenduak?
Egunero entrenatzen dut. Zehazki, astearte eta ostegunetan judoa egiten dut eta astelehen, asteazken eta ostiraletan, aldiz, gimnasioan entrenamendu fisikoa egiten dut, pisuak altxatzen ditut edo erresistentzia lantzen dut.

Entrenamenduak eta txapelketak ikasketekin uztartzea erraza da?
Gaur egun ikasketak aurrera ateratzeko ondo moldatzen naizela esango nuke, eskolako zereginak eta kirola uztartzeko moldatzen naiz. Entrenatzera joan aurretik ikasi ohi dut, biharko egunean etorkizun on bat izatea gustatuko litzaidakeelako.

Judoka bezala, zeintzuk dira zure indarguneak?
Oso pertsona saiatua naiz eta hori da nire bertute nagusia. Eguneroko entrenamenduetan dena ematen dut buruan finkatutako helburuak lortu ahal izateko. Oraintxe nire helburua Espainiako Txapelketara joatea da eta nire onena ematea.

Hilabeteko epea nahikoa da horrelako txapelketa bat behar den moduan prestatzeko?
Bai, dieta eta prestakuntza fisikoa kontuan hartuta baietz esango nuke. Izan ere, orain arte ez bazara behar bezala ahalegindu, ezinezkoa da orain beharrezko guztia hiru asteren buruan lortzea. Kirolak eguneroko lana eskatzen du.

Espainiako Txapelketaren ostean, zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?
Espainiako Txapelketaren ostean, Espainiako Kopa batzuk jokatuko ditudala uste dut. Orduan, denboraldi berrian, kadete kategoriara pasako nintzateke eta bertan zer gertatuko den ikusteko dago, ni baino hiru urte gehiago dauzkaten aurkariekin neurtu beharko bainaiz niretzako berria izango den kategoria batean.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Ez nauzu maite

Nire pasahitzak eskatzen dizkidazulako

Irten aurretik, arropaz aldatzera behartzen nauzulako

Nire lagunak ez dituzaulako inoiz gogoko

Sakelakoa zelatatzen didazulako

Nire estiloagatik barregarri uzten nauzulako

Lagunekin geratu nahi badut, haserretu egiten zarelako

Nire likeak direla-eta haserretzen zarelako

#MaitatzeaEzDaKontrolatzea

Genero Indarkeriaren kontra sentsibilizatzeko kanpaina

Beldur pasabidea Gaztelekuan

Azaroaren 20an, Irungo Gaztelekua... BELDURREZKO ETXE bilakatuko da! Beldurrezko pasabide honetan parte hartu ahal izateko, lehenagotik izena ematea eta ordua hartzea beharrezkoa izango da. Banaka, binaka, taldean... eman dezakezue izena, baina gehienez 6 pertsonako taldeka sartuko zarete.

Ordua: 18:30-21:30artean dira txandak, 3 minuturo (18:30,18:33,18:36,...). Txanda bakoitzak 5 bat minutu pasako ditu beldurrezko pasabidean.

Tokia: Martindozenea Gaztelekua. Adina: 12-25 urte

Izen emateak: Lehenagotik izena ematea eta ordua hartzea beharrezkoa izango da. Gaztelekura etorriz edo 690706471 telefonora deituz ala idatziz apuntatu zaitezkete, eta ondoren Gaztelekura sarrera bila etorri beharko zarete.

Edozein duda edo galdera baduzu deitu lasai asko!

Navacerrada eski-estazioko lan-poltsa

Navacerrada eski-estaziak lan-poltsa ireki du 2021-2022 denboraldirako.

- Erremonteetako langileak

- Pistetako zerbitzua

- Txarteldegietako laguntzaileak

Interesdunak: bidali curriculuma info@puertonavacerrada.com helbidera.

2022ko egutegirako argazkiak

Irungo Udalak herritarrak bihurtu nahi ditu 2022ko udal egutegiaren diseinuaren protagonista, beren argazki propioak aurkezteko aukera emanda.

Oraingoan, gaia Irun da, izen propioz.

Hiriko pertsona ezagunei eskainitako kaleen, plazen, eskulturen, eraikinen... irudiak bildu nahi dira, gure kale izendegiko izen berezi askoren atzean zer dagoen gogoratzeko eta jakiteko lagungarri.

Bereziki, oso ezagunak ez diren lekuen irudiak bidaltzea baloratuko da, Irun elkarrekin deskubritzen lagunduko baitigute.

Argazki guztien artetik HAMAHIRU aukeratuko dira, azalekoaz gain. Hain zuzen ere, Irungo Argazki Elkarteak aukeratuko ditu, urtero lagundu ohi baitu udal egutegia editatzen.

Informazio guztia www.irun.org webgunean aurkituko duzue.

Praktikak Europar Batasunean

Europar Batasuneko erakundeetan karrera profesionala izan daitekeenaren aurrerapena izan nahi baduzu, eskatu praktika batzuk.

Urtero, 2.000 gazte inguruk beren gaitasun profesionalak hobetzeko, beren ezaugarri pertsonalak garatzeko eta Europar Batasuna hobeto ezagutzeko aukera dute praktiken programei esker. EBko erakunde gehienek unibertsitate-tituludun gazteentzako praktikak antolatzen dituzte, 3 eta 5 hilabete bitartekoak.

Onuradunei nazioarteko ingurune batean garatzeko aukera ematen dieten praktikak dira, Europa mailako politikak ezagutzeko eta horietan parte hartzeko aukerarekin, eta erakunde horien funtzionamendua ezagutzeko aukerarekin.

EBko erakunde eta agentzia bakoitzak banaka antolatzen ditu bekadunak hautatzeko prozedurak. Esteka hauetan informazioa lor dezakezu eta eskuragarri dauden aukeretako batzuk ikus ditzakezu:

- Praktikak Europako Batzordean
- Praktikak Europako Kontseiluko Idazkaritzan
- Praktikak Europako Parlamentuan
- Praktikak Europako Ekonomia eta Gizarte Komitean
- Praktikak EBko Justizia Auzitegian
- Europako Banku Zentrala



Azaroak

20

FICAB: Amaiera gala

Zer: FICAB jaialdiaren itxiera eta The Dig pelikularen emankizuna, Bizinemaren animazioarekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean.

21

Bandaren kontzertua

Zer: Irun Hiria musika bandak kontzertua eskainiko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan eta antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

25

Cyclotherapy

Zer: "Cyclotherapy: Bazen behin amets bat. 9 urte munduan zehar bizikletan".

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Amaia KZn banatuko dira jarduera hasi baino 30 minutu lehenago.
Hizkuntza: Gaztelaniaz.

27

Familientzako antzerkia

Zer: GLU GLU-K Perez sagutxoaren benetako istorioa taularatuko du. Kondaira honek muga, belaunaldi, amets eta burko guztiak gainditu ditu urteetan zehar.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

27

Musika

Zer: Oiassoko kontzertu akustikoen barnean, Jaime Alvarellos gitarristak kontzertua eskainiko du.

Non: Oiasso museoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

28

Antzerkia

Zer: "La visita-El compromiso-El Samurai Cazapulgas" antzezlana Aiko konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Denbora-pasen emaitzak



P	H	Z	B	Z	M	P	Q	A	L	E	I	C	Y
G	A	M	A	L	U	R	N	O	B	Z	Q	D	Q
X	A	A	U	K	Q	V	O	N	R	D	S	X	U
J	O	U	Q	F	E	K	O	H	W	T	Q	V	Z
A	L	I	E	M	V	R	O	E	Q	P	Z	H	E
A	X	E	S	K	R	Y	B	R	T	G	O	I	T
Z	T	E	N	R	O	P	D	E	I	S	H	V	X
A	I	E	K	C	Y	C	S	N	L	I	G	T	D
I	I	G	S	P	S	Z	U	S	Q	T	B	F	Q
Y	G	G	I	V	R	U	G	U	T	A	Z	B	L
M	C	M	A	R	I	N	A	G	U	R	X	J	Q
O	C	B	O	L	Y	C	A	E	J	T	C	L	I
K	T	Z	B	S	X	U	R	S	G	E	X	I	W
B	T	S	T	S	Y	A	B	Y	L	K	C	H	V

4	5	2	7	1	6	8	9	3
3	9	7	5	8	2	4	6	1
1	6	8	3	9	4	5	2	7
2	8	4	6	3	9	7	1	5
9	1	5	2	4	7	3	8	6
7	3	6	8	5	1	2	4	9
8	2	9	1	7	3	6	5	4
6	7	1	4	2	5	9	3	8
5	4	3	9	6	8	1	7	2

BEZERO BERRIAK LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU

837COMUNICACION.COM